



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-04-16**

VIIURTEA 1.677.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Antonio Fernandez astero etorriko da Zumarragatik; bi astez behin maindireak, arropa,... postuak ere izango dira. N.U.

ASTEAZKENEROKO AZOKA MARTXAN LARRAITZ AUZOAN

ALEGIA Duela hilabete berreskuratu zuten; postuak goizean zehar jartzen dituzte; fruta, arropa, barazkiak, oinetakoak,... daude aukeran 5

Etzi, Euskadiko Ikasleen Orkestraren emanaldia

TOLOSA Leidor aretoan izango da; emanaldia hiru zatitan banatuta eskainiko dute 3



Agerraldia egin zuten Villabonako plazan. I.GARCIA

Dispertsioaren «politika kriminala» salatzeko deialdia

VILLABONA Etxerategi deituta, auto karabana egingo dute gaur eskualdean zehar 4

Zazpi domina lortu dituzte TAKeko arraunlariek

TOLOSA Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten Pasaia San Pedron pasa den asteburuan 2



Batelen ligako 7 eta 8. jardunaldiak jokatu zituzteneko irudia, Getarian. HITZA

Zazpi domina ekarri dituzte etxera TAKeko arraunlariek

Arrauna » Pasaia San Pedron jokatu zuten pasa den asteburuan Gipuzkoako Txapelketa Tolosaldekoek.

ERREDAKZIOA

Emaitza bikainak lortu zituzten pasa den asteburuan Tolosaldeko Arraun Klubeko arraunlariek, Pasaia San Pedron jokatuak Gipuzkoako Txapelketan. Guztira zazpi domina irabazi zituzten, urrezko bat, zilarrezko bat eta brontzezko sei. Emaitza hauei esker, TAK izan zen podiumera gehien igo zen kluba.

TAKeko neskak ligaxkako lehen sailkatuak izan ziren eta bandera ere lortu zuten; halaber, Gipuzkoako Txapelketako bigarren egin zuten, Zumaiaren atzetik.

Infantil-kadeteen kasuan, brontzezko dominarekin bueltatu ziren, ligan hirugarren egin ondo-

ren. Haatik, Gipuzkoakoan ez zuten zortirik izan; izan ere, larunbatean irabazi ondoren Olatz Lopezek ezin izan zuen igandean parte hartu, gaixotu egin zen eta. Baja honen ondorioz podiumetik kanpo geratu ziren, «lan bikaina egin arren». Orain Euskadikoan pentساتu beharko dute.

Mutiletan ere maila altua

Emakumezkoak oso ondo aritu ziren eta TAKeko mutilak ere ez ziren gutxiago izan. Infantiletan, esaterako, brontzezko domina eskuratu zuten, bai ligaxkan baita Gipuzkoako Txapelketan ere. Oso sailkapen estua izan zen, lehenengoarekiko, Getariarekiko, bost segundoko aldearekin baino ez baitziren sailkatu eskualdekoak. Orio eta Hondarribi indartsuen aurretik sailkatu ziren infantilak.

Kadete eta jubenet mailetan ere brontzea lortu zuten. Lehenengoek liga irregularra egin dute baina asteburua biribila izan zen euren-

tzat, larunbatean ohoreko txandarako sailkatu ondoren, hirugarren postuan sartu baitziren. Jubenet kasuan, brontzea ligan nahiz txapelketan lortu dute. Asteburuan, Orio izan zen garaile eta bost segundoko aldearekin sailkatu ziren.

Ziaboga onenaren saria, Aitor Urkolarentzat

Aurkari gogorrak izan dituzte TAKekoek, Orio, Zarautz eta Getaria tartean. Baina domina ugari eskuratu dituzte. Gainera, banakako sarietan Aitor Urkola *Barundik* zabioga onenari saria lortu du, kadeteen mailan.

Asteburu honetan, hilaren 18an eta 19an, Euskadiko Txapelketa jokatu dute Sestaon. Bertan izanago dira TAKeko arraunlariak «pasa den asteburuko emaitza onak errepikatu nahian». Aipaturiko talde guztiekin batera emakumezkoen jubenet taldea ere arliko da.

Jendaurrean hitz egiten trebatzeko ikastaroa antolatu dute

Gizartea » Apirilaren 25ean izango da egun bateko saioa, Aiuola Perez de Urrestiren eskutik.

ERREDAKZIOA

Apirilaren 25erako jendaurrean hitz egiten trebatzeko ikastaroa antolatu dute. Egunduko izango da 09:00etatik 20:00etara iraungo du. Interesatuak 943 118669 telefono zenbakira dei dezakete edota risainteligente@hotmail.com helbidean informatu daitezke.

Aiuola Perez de Urrestik gidatuko du saioa eta helburua «hitz egiteko gaitasunean trebatzea eta autoestiman laguntzea» izango da era honetan, «komunikatzen ikastea eta esan nahi dugunarekin arrakasta izatea» lortu ahal izateko. Parte hartzeko deialdia zabaldu dute.

Autoestima tailerra hilaren 26an

Halaber, hilaren 26an, igandearekin, autoestimari buruzko tailerra antolatu dute. Alex Navarro psikologoak gidatuko du tailer hau, *Ni ideala eta ni erreala, barneko elkarriketari ahotsa jarri* izenburupean.

Egun osoan jorratuko dute gaia, 09:00etatik 18:30era. Informazio gehiago 688800800 telefono zenbakian edota formacionsayta@hotmail.com helbidean eskura daitezke.

Antolatzaileek norbera hobeto sentitzeko eta bizitzak eskaintzen dizun egoeren aurrean nola jokatu jakiteko autoestimak duen garrantzia azpimarratu dute. Horrengatik jende guztia gonbidatu nahi dute tailer honetan parte hartzera.

Laburrak

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute

EUSKARA » Galtzaundi Euskara Taldeak heldu den maiatzaren 10ean ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu. Izena emateko Galtzaundiko egoitzara gerturatu beharko dute interesatuak, eta 11 euro ordaindu beharko dute. Iparraldeko ikastolen aldeko jaialdira joateko autobusa Tolosako tren geltokitik abiatuko da 09:00etan eta itzulera 19:00etan izango da. Informazio gehiago, www.galtzaundi.com helbidean lor daitezke.

Arnedora irteera antolatu dute Amaroako jubilatuek

GIZARTEA » Amaroako jubilatuek Arnedora irteera antolatu dute, apirilaren 26rako, igandearekin. Izena lokalean bertan eman daitezke ostegunetan eta ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara edota 653 747 192 telefono zenbakian. Irteerara joan nahi duenak 12 euro ordaindu beharko ditu. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, «egitarau polit batekin» osatu dute txangoa eta parte hartzera animatu dute.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendan,
- Ibarako Lurdes liburudendan,
- Villabonako Basajaun liburudendan.



Euskadiko Ikasleen Orkestraren emanaldia etzi, Leidor aretoan

Musika » 19:30ean izango da; sarrerak Leidorreko leihatilan lortu ahalko dira; hiru zatitan banatuta dago emanaldia.

ERREDAKZIOA

Euskadiko Ikasleen Orkestrak Iker Sanchez Silvaren zuzendaritzapean kontzertua eskainiko du etzi, Leidor aretoan, 19:30etik aurrera. Kontzertu honetara gonbidapenen bidez joan ahalko da, eta hauek Leidorreko leihatilan lortzeko aukera egongo da agortu bitartean.

2005ean hasi zen ekimenaren baitakoa da etziko emanaldia. Izan ere, urte horretan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak bere menpean dauden hiru Kontserbatoiari proiektu pedagogiko bat proposatu zien. «Proiektu honetan profesional mailako musika ikasleek parte hartzen zuten eta orkestra sinfoniko bat Espainia eta Europarekin elkartrukeetan parte hartzeko sortu zen».

«Proiektu honen helburuen artean, gaur egun derrigorrezko hezkuntza eta hezkuntza musikal batera egin behar duten ikasleek motibatzeko zen, ikasle hauek ikastordua haundia jasan behar baitute bi hezkuntzak batera egiteko», dio



Leidorren ariko da etzi Euskadiko Ikasleen Orkestra. Irudian, Euskadiko Gazte Orkestra Leidorren, 2006an. I. GARCIA

Iñaki Lagosek, Orkestrako kideak. «Honetaz aparte ikasleen hezkuntza musikala indartu nahi izan genuen, horretarako kalitatezko orkestra bat sortu eta entsegu eta kontzertuen bidez helburu musikal handiagoak lortu genituen». Aldi berean Hiru Kontserbatorioen artean elkarlanerako esparruak ezarri zituzten.

Helburu hauek indartzeko eta kalitatezko eta elkarlanerako lanetan beste pauso bat emateko, ikasturte honetan eta 2009-2010 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste Kontserbatorio eta

Musika Eskoletara zabaldu dute ekimena. «Honela, parte hartzen duten 12 eta 18 urteko ikasleak EAEko herri desberdinetakoak dira. Kontserbatorioekin elkartrukeetan parte hartzen dugu eta kontzertuak hemen nahiz kanpoean eman ditugu eta ematen jarraituko dugu».

Tolosan etzi emango duten kontzertuak gain, Bilbon eta Gasteizen ere emango dituzte, eta Bartzelonako Udal Musika Kontserbatorioarekin elkartrukea ere ari dira egiten. Hain zuzen ere, martxoan izan ziren haiek Gasteizen eta Bil-

bon, eta Euskadiko Ikasleen Orkestra Maiatzaren 22tik 24ra joango da Bartzelonara emanaldiak eskaintzera.

Kontzertuak hiru zati

Etziko kontzertuari begira gogor ari dira eskuetan ikasle gazteak Eibarren. Hiru zati izango ditu orotara saioak: lehena Sibeliusen *Finlandia* izango da; bigarrena, Weber-en *Klarineterako kontzertua*; eta azken obra Edward Grieg-en *Peergyint* izango da. Aukera paregea, beraz, Leidorren, orkestra gazteaz gozatzeko.

Bizkarrezurraren osasunaz hitzaldia

Osasuna » Michel Marmier mediku kiropraktikoak emango du datorren ostegunean Samaniego ikastetxean.

ERREDAKZIOA

Datorren ostegunean, hilaren 23an, bizkarreko arazoengatik inguruan solasaldia izango da Samaniego ikastetxearen batzar aretoan, Samaniegok eta Orixek antolatuta. Hitzaldia 18:00etan izango da, eta hauek handitzearekin kiropraktikoak bizkarrezurrean adituak emango du.

Hain zuzen ere, gazte eta haurren prebentzioaz ariko da. «Erorketak, jarrera ezegokiak edota erditzeak gaixotasunak sor ditzakete, eta hauek handitzearekin batera areagotuz joan daitezke; horiek argitzea eta ekiditea izango da solasaldi honen helburu nagusia».

Hala, ikastetxeko aulki eta ma-

haiek izan behar duten altuera egokiaz ariko da, eta baita gazte-txoek motxilan eman beharko luketeen gehieneko pisuaz ere. Buzur behera lo egiteak osasunerako sor ditzakeen kalteez ere ariko da Marmier medikua. Halaber, elikadura ere bizkarrezurraren osasunarekin loturik dagoela azalduko du, eta kirolaren inguruan ere mintzatuko da.

Eskoliosia eta giza gorputza ere jorratuko ditu. Azken honetan, bizkarrezurraren atalei buruz ariko da, eta nerbio sistemarekin duen lotura zuzenaz. Bizkarrezurraren degenerazioaz eta hauek bulatzeko faktorea azalduko ditu baita ere.

Marmier medikuak arazo hauek ekiditeko aholku praktikoko emango dizkie hitzaldira gerturatzeko direnei; «izan ere, argi geratu behar da txikitatik zaindu beharrekoa dela, bizkarrezurra ez baita garabi bat, eta jarrera desegokiak ondorio latzak izan ditzakete etorkizunean».



Iturria berriro ere San Frantziskon

AZPIEGITURAK » Inauterietarako kendu egin zuten San Frantzisko elizaren aurreko iturria kolektorearen obrak direla-eta konpartsek bertatik igartzeko leku handiagoa izan zezaten. Bada, atzo berriro ere jarri zuten iturria, beraz, ohiko itxura hartu du herriko txoko horrek. I.T.

Laburrak

Ezkontza aurreko ikastaroa datorren astean

ERLUJIOA » Datorren astelehenean ostegunera, hau da, hilaren 20tik 23ra, ezkontza aurreko ikastaroa emango dute Santa Maria parrokiako lokaletan. Ikastaro hau datozen hilabeteetan elizaz ezkontzeko asmoa duten Tolosaldeko bikoteei zuzenduta dago. 20:00etan izango dira.

Gironara bidaiaria antolatu du Harizpe jubilatua elkarteak

AISIA » Tolosako Harizpe jubilatuen elkarteak Playa de Arora (Girona) bidaiaria antolatu du ekainaren 1etik 15era. Bidaiaria honen baitan hiru izarreko hortelean egonaldia, joan-etorria autobusean, pentsio osoa ura eta ardoarekin, bidaiaria asegurua eta gidari laguntzailea sartzen da. Bartzideek 391 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek, berriz, 397. Maiatzaren 21era arte izango da izena emateko aukera.

'Hans kankailu' ipuinari buruzko erakusketa

LITERATURA » Datorren ostegunera arte, hilaren 23ra arte, *Hans kankailu* ipuinari buruzko erakusketa dago ikusgai Errota Haur Liburutegian. Hain zuzen ere, Liburuaren Nazioarteko Eguna izango da erakusketaren azken eguna.

'100% Tricicle' saiorako txartelak salgai

ANTZERKIA » 100% *Tricicle* emanaldia eskainiko du Tricicle-ren Clowning konpainiak datorren larunbatean, hilaren 25ean, Leidor aretoan. 20:30ean izango da saioa, eta Tolosako estreinaldia da Euskal Herria mailan. Sarrerak 15 euroren truke eskuratu daitezke ohiko moduan, www.kutxa.net-en, Servikutxan, Telekutxan edota 943001200 telefono zenbakian. Gainera, %30eko deskontua izango dute leihatilan, aldeztu aurretik erosten dutenek, gazte-txartela erabiliz, edota familia ugariak edo jubilatutak direnek.

Hileroko odol ematea izango da astelehenean

GIZARTEA » Hileroko odol ematea egingo dute datorren astelehenean, hilaren 20an. Ohiko moduan Kultur Etxera joan beharko dute parte hartu nahi dutenek.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. 638 94 46 04 (Irene) / 695 70 82 71 (Itsaso). I.T.

Dispertsioaren «politika kriminala» salatzen deia luzatu diete herritarrei

Politika » Etxerateg deituta auto karabana egingo dute gaur eskualdean zehar; Villabonan bukatuko dute ekitaldi batekin.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko Etxerateg eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) sakanabaketaren «espetxe politika kriminala» salatzen deia «euskal gizartearen parte-hartze zuzena» eskatuz, mobilizazioa deitu dute. Horretarako Tolosaldean, gaur, 16:30ean Ikaiztegiatik aterako da kotxe karabana. Eskualdeko hainbat herrietatik pasako da: Alegia, Altzo, Lizartza, Leaburu, Belauntza, Ibarra, Tolosa, Anoeta, Irura, Aduna, Zizurkil, As-teasu eta 19:30ak aldera amaituko da ekitaldi politikoa batekin Villabonan.

Beste ekitaldi baterako deialdia ere luzatu zuten, hain justu, hilaren 19an Durangon (Bizkaia) egingo den ekitaldi nazionalerako. Egun horretan betetzen dira 20 urte «PSOEk eta PNVk martxan jarri zutela politika kriminal hori».



Eskualdeko Etxerateg eta AAMk Villabonan egindako prentsaurrekoaren une bat. I. GARCIA

Villabonan egindako prentsaurrekoan, azken 20 urte horietan espetxe politikan emandako aldaketak zehaztu zituzten Etxerategetik. 1989an, sakanabaketarekin batera, «gogortze aldi bat» hasten dela zioten: «Bizi baldintzak minimoen azpitik kokatzen dira, murrizketa gogorak ezartzen dira komunikazioetan, baldintzapeko askatasunaren ukapen sistematikoa, maiz-

tasuneko agresioak espetxeetan eta batez ere espetxez espetxeko eta epaitegiraiko kondukzioetan...».

Fase hori bukatuta, PPK eta PSOEek beste bati ekin ziotela azaldu zuen Etxerateg, «euskal jendarteak ideia independentistak alde batera uztera behartzeko eta presoekin zein beraien hurkoen artean etsipena errotzeko». Aldi hau

«bereziki gogorra» dela zioten eta «bilatzen den muturreko gogortasun honi zirrikiturik ez uzteko, neurri pakete zehatz bat diseinatzeko da zuzena, gainera, estaldura legal bat ematen zaion».

Espetxe politika horiekin, Etxerateg zehazten duenez, «ez dute lortu beraiek zuten benetako helburua: presoekin arteko krisi politiko eta presoekin kolektibo-

tasuna haustea. Baina lortu dute 37 euskaldun erailteza, 21 preso eta 16 senide».

Presoen eskubideak

Bere aldetik, AAMk azaldu zuenez, «duela 20 urte esana genuen dispertsio politika neurri politikoa zehatz bat zela, helburu zehatz batzuekin». Helburu horiek ez direla bermatu zehaztu zuten: «Estatuak ez du euskal preso politikoen kolektibo bere nahierara kriminalizatzea lortu eta horren erakusle garbia da kolektiboak oraindik bizirik diruela Espainiako espetxeetan eta mundu zabalean barreiatuta».

Euskal preso politikoei «pertsonea eta preso bezala dituzten eskubideak zapalduak dituzte», dio AAMk. «Espainiako eta Frantziako espetxeetako egoera okertzen doa egunegun, eta preso askoren egoera oso kezagarria eta latza da». Eta gaineratu zuten «mendekuzko espetxe politika horrek» bilatzen duen helburu bakarra «presoa pertsona bezala eta eragile politikoa bezala txikitzea eta markatzea dela, deuseztealegia», eta hori «ezin da inolaz ere onartu». Tolosaldeko zein Euskal Herriko herri guztietan datozen egunetan «sinadura bilketa erraldoia» abian jarriko dutela azaldu zuten eta herritar orori gonbidatzen diete sinatzea eta egingo diren ekimenetan parte hartzea.



Ikurrinak banatzen Aberri Egunerako

ADUNA » Urtero Adunan Aberri Eguna ospatu izan da eta iaiz ere Lardi auzoan ospatu zen. Aurtengoan hainbat herritarrek deia egin zuten Irundik Hendaiara

egindako Aberri Egunean parte hartzera. Bestalde, ikurrinak jartzeko gonbidapena ere luzatu zuten eta ez zutenei, argazkian bezala, banatu egin zieten. HITZA

Alkartasunako mahai jokoetan lehiatzera

Anoeta » Guztira jubilatuen elkarteko 15 bazkidek hartuko dute parte bihar Urnietan egingo den txapelketan.

ERREDAKZIOA

Anoetako Alkartasuna biltokiko hainbat bazkide lehiatuko dira bihar, 10:00etan, Urnietan eskualdeko mahai jokoen txapelketan. Hauek izango dira parte hartuko duten bazkideak: txintxonon Maialen Mariat; dominon Angel Brillo eta Bernardo Borrego; esko-

ban Maria Teresa Odriozola eta Ludovina Perea; musean zortzi erregetara Manolo Iriarte eta Baldomero Benito; musean lau erregetara Jose Ramon Zubia eta Juan Jose Aldaz; puntuan Jose Maria Esnaola eta Bartolome Jauregi; tutean Jose Luis Descalzo eta Laureano de Arribas; eta tokan Fidel Benito eta Santiago Tejeria. Biharko txapelketan irabazten dutenek beste lehiaketa bat izango dute zain Goierriko irabazleen aurka.

Bestalde, gaur bertan Alkartasunatik antolatutako egun pasan 33 lagun joan dira Nafarroako Baztan eskualdera.



HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu

AKABA BERA BERA
Molly Cleba

Donostiako Bidebieta kiroldegian
Apirilak 18 • **Larunbata** • 19:00etan

HITZAK harpidedunentzat
sarrera pare du

Bruesa GBC
MMT Estudiantes

Donostiako Illunben
Apirilak 19 • **Igandea** • 18:00etan



sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula



Bi astero arropa, oinetako eta maindire postuak izaten dira frutarenekin batera. Beraz, datorren astean. N. URBIZU

Asteazkeneroko azoka berreskuratu dute herrian

Alegia » Larraitz auzoan duela hilabete hasi zen; postuak goizean zehar daude, bertan fruta, arropa zein barazkiak dituztelarik.

NEREA URBIZU

Larraitz auzoko plazan asteazkenen goizetan saltsa izango da, garai bateko azoka berreskuratu baitute. Atzo, esaterako, fruitu postu handi bat izan zen. Auzokideek esan zuten bezala, «duela lau urte arte asteazkenetan azoka izaten zen ere. Urte askotan izan da. Egia esan, zerbitzua egiten du eta ekarzen duten fruta kalitatezkoa da, dendetan ere daukaguna, noski».

Duela hilabete bat hasi zen eta «egiten duen eguraldia eginda ere, bertan izango dira postuak» jarri-ta. Frutaz eta barazkiez gain, hamabost egunero maindireen postua, arropena eta oinetakoena ere izango dira. Eta datorren astean edo bestela hemendik bi astetara (oraindik ez dute data zehaztu), hestebeena ere izango da, hau da; txerriak, txorixoak, kontserbak... erosi ahal izango dira.

Aspaldi plaza nagusi ondoko plazatxoan egiten zuten azoka, gaur egun Txintxarria dagoen plazan, hain zuzen ere. «Baina Larraitzen duela 30 urte behintzat bai egiten da». Orduan bezala, saltzaileak beste herrietatik etorritzen dira, «ez dira alegiarrak». Kasu honetan fruta saltzailea Zumarragatik etortzen da.

«Nahi bada, etorri egin behar»

Herriak duen beste zerbitzu bat da azoka, baina bertan zeuden erosleek zioten bezala, «mantendu nahi bada, etorri egin behar da. Ez dagoenean faltan botatzen dugu». Izan ere, orain arte egon zen azoka egiteari utzi zioten jendea gutxiago joaten zelako. Baina egia esan, atzo erosle ugari gerturatu zen Larraitzko plazara.

Batez ere Larraitzen bizi direnek faltan bota dute azoka urte hauetan: «Bertatik bertara dago, kalitatezkoa da dena eta astero behar dena eros daiteke».

Zumarragatik Alegiara

Antonio Fernandez da atzoko ferrian zegoen saltzailea: Zumarragatik etortzen da eta astean zehar

hainbat herritan egiten du lan: Nafarroan, Araban, Alegian eta Errenterian (Beraun auzoa). Errioxako fruta saltzen ditu batetik bat.

Duela lau urte arte ez zen bera etortzen, baina «enteratu nintzenean azokarik ez zegoela Alegiako Udalarri eskaera egin nion. Baiezkoa erantzun zidaten eta duela hilabete hasi nintzen. Beste saltzaile batzuekin hitz egin nuen eta gutxi-na eko etorriko dira, baina bi astetik behin seguruenik». Izan ere, arropa eta oinetakoak ez dira egunero behar, janaria bezala «eta hauek saltzea zailagoa da».

Alegian saltzen duenarekin «pozik» dago. «Ez dut pila bat saltzen, baina bizitzeko adina bai. Beste produktu mota batzuk dituztenek ez dute etorri nahi, ez baitzaie interesatzen. Egia esan, asko jaitsi da salmenta: orain erdia saltzen dugu».

Bestalde, 09:00etatik 14:00etara bitarte erosi ezin duen den jendearentzat erraztasunak ematen dituzte: telefonoz hots eginez gero, erosleak behar duena prest izaten du saltzaileak, azokaren bukaeran handik pasa eta erosketa hartzeko.

Etzi, eskolarteko txirrindulari proba izango da Alegian

ERREDAKZIOA

Alegiako Langurre txirrindulari taldeak eskola arteko txirrindulari proba antolatu du. Alegian bertan izango da, arratsaldean hasita. Beraz, alebinak, infantilak eta benjaminak ariko dira bizikleta gainean. 16:30ean hasiko da proba guztia.

Bilbidea honakoa izango da: Larraitz auzotik aterako dira, eskolatik pasa, Etxeturiko bidetik barrena Talleres Garaino aldera joko dute, eta bukatzeko, handik berriz ere Larraitz auzora buelta-

tuko dira. Noski, maila bakoitzak distantzia bat egin beharko du, adinari egokitu-ta.

Guztira 75 bat txirrindulari bilduko dira Alegian, txirrindularitza eskola desberdinetan banatuta. Eskolarteko probak eskualdeka egiten dira eta horregatik Tolosaldeko eta Goierriko txirrindulariak ariko dira etzi Alegian. Aurten ez da Alegiako txirrindularirik aterako, min hartuta dagoelako. Azken aldiz Alegian duela bi urte egin zen eskolarteko proba.



Bedaioarra eta belauntzarra garaikurra eskutan dutela. HITZA

Beloki-Iturbe alebinak, Gipuzkoako pilota txapel-dunak

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako binakako pilota txapel-dunak alebin mailan Beñat Beloki bedaioarra eta Mikel Iturbe belauntzarra izan dira. Txapelketan 29 bikotek hartu dute parte. Horrela bada, txapela Bedaio eta Belauntza aldera joan dira.

Finalera iristeko hiru jardunaldi jokatu behar izan dituzte, herri desberdinetan gainera: Ataun, Igeldo, Añorga, Aretxabaleta, Se-

gura eta Amasa, eta finaleko partida Adunan, azkoitiarren aurka.

Beñat eta Mikel 16-8 nagusitu ziren. Mikelek 10 tanto sartu zizkien, eta Beñatek aurkariaren sakeei ondo eusten jakin zuen.


«Zorionak parte-hartzaile guztiei, animo eta jarraitu horrela. Zeinek daki, bikote hauen artean agian egongo da etorkizuneko Euskal Herriko pilotari txapel-dun handia...»



bidali opor hauetako argazkiak!



1. Saria



Aldori landetxean 2 pertsonentzako astebururako egonaldia



2. Saria

Larrea

Larrea jatetxean bi pertsonentzako otordua

3. Saria

Gorrotxategiren saski berezia: Txokolatzeko txapela, xaxu kaxa, telak eta zigarratxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
• Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!



Arazoekin baina Karrape airean

LEITZA • Karrape Irratiaren uhinak atzo aieratu ziren berriro ere. Aste Santuak eta leku aldaketa lanen ondorioz, Leitzako irratien boza isilik zegoen azken egunetan. Atzo ordea, 11:00etan Arantxaren ahotsa herriko etxe guztietara heldu zen berriro ere. Unaien eta Arantxaren saioa gaurtik aurrera ohiko orduan entzuteko aukera izanen da, nahiz eta oraindik arazo tekniko guztiak ez dizkieten konpondu. Arazoak ara-

zo, Karrape Irratia airean da Nafarroako Kutxa zaharren lokaletik. Lehen, Irratiak bere txokoa udaletxeko lehen solairuan zuen, orain hilabete batzuz gune berrian egongo da. Atzokoan jadanik lehen bisita jaso zuen Arantxak, ezustean Markos, Maria eta Migel haurrak sartu baitzitzaizkion zuzenean lanean ari zela barneraino. Hiru haurrek irratian hitz egiteko aukera eta guzti izan zuten. **A. IMAZ**

S Soka motzean

«Jubilatu aurretik zenbaki saridun bat saltzea izugarri gustatuko litzaidake»

MIGEL ZUBILLAGA •
Leitzako ONCEren saltzailea

A. IMAZ

ONCEren kioskoan egunero egoten da lanean Migel Zubillaga (Erasun, 1948). Jada badira 20 urtetik gora lanpostu horrekin Leitzan bizi dela eta aurren erretiratuko omen da, uztailearen 18an.

Azken aste hauetan Euskal Herrian hiru sari utzi ditu ONCEk. Inoiz banatu al duzu zuk zenbaki saridunik?

Hasi eta lehen urtean hiru sari banatu nituen. Hiru *gordo*. Ondorengo 20 urteetan ez da ezer etorri.

Nolakoa da zure eguna?

Goizean kioskoan izaten naiz 07:45ean. Dena saldu arte lan egin eta ondoren bazkaltzera. Telebista piztu, siesta bota eta kartetan jolastera joaten naiz arratsaldean.

Musean?

Ez, txintxonean ibiltzen gara. (Barreak). Ostiraletan berriz pilota ikusteko gelditzen gara, asko gustatzen zait pilota.

Erasunen jaio, Leitzan bizi, nola ez.

Osaba eta iloba oso onak ziren, biak.

Eta Barriola eta Bengoetxea VI?

Baita ere. Lastima handia da Abelena. Bengoetxea berriz ondo dabil. Hala ere, Irujo eta horiei txapela kentzea zaila izango da aurtengoan.

Nolatan hasi zinen lanpostu honetan?

Motorrarekin istripua eduki genuen, 20 urte nituen. Mezeta-tik baserrira gindoazen Erasunen eta errepidetik atera ginen. Hiru hilabete egon nintzen konorterik gabe. Gero eskaera egin nuen eta lanpostu hau eman zidaten. Horik etorri zen dena. Orain jubilatu egingo naiz, uztailearen 18an. Jubilatu aurretik zenbaki saridun bat saltzea izugarri gustatuko litzaidake.



ASIER IMAZ

Leitzan sutarako egurra behar duenarentzat

A. IMAZ

Leitzako alkatearen izenean bandoa zabaldu dute herrian sutarako egurra nahi duten guztientzat. Horretarako egin beharrekoa ondorengo da: «Sutarako egurra nahi duten guztiek, nahiz herrikoak nahiz beserritarak, beraien izena eman beharko dute 012 telefonora deituz».

Horretarako azken eguna hilaren 30a izanen da, «eguerdiko ordu bata baino lehen». Epe hau ez

omen da luzatuko gainera. Aurreko urteko lotea atera ez duenari berriz, bandoaren arabera ez zaio aurren loterik emanen.

Gaitz egurra

Gaitz egurra eskatzen duten herri-tarek ere, lehen aipatu epe berdina izanen dute, hau da, hilaren 30a bitarte. Gaitz egurra nahi dutenek telefono zenbakira deitu beharrean Udal Idazkaritzan idatziz eskatu beharko dute.

'Piratak' ikusteko sarrerak gune berrietan

Leitza • Maiatzaren 13an Piritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak inguruko herrietan jarri dituzte salgai.

aurrera hiru pailazoen. Sarrerak berriz, hainbat herritan jarri dituzte salgai 6 euroren truke. 2007, 2008 eta 2009 urteetan jaiotako haurtxoek ikuskizuna doan ikusteko aukera edukiko dute.

Sarrera puntu berriak


Leitzan Maimur eta Astiz liburudendan aurkitzen dira. Berastegin Dendaberrin. Irurtzunen Iku-sar Euskal Txokoan. Lekumberrin Lanbroa liburudendan. Donezteben Astiz liburudendan. Goizuetan Anaia Kafetegian. Tolosan Raku tabernan eta Andoainean Ernaiza liburudendan.

A. IMAZ

Erleta Ikastetxeko Denok Bat Guraso Elkarteak eta Aurrera KEK, Leitzako Udalaren laguntzarekin, Piritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna antolatu du maiatzaren 13rako, asteazkena. Leitzako kiroldegian *Piratak* ikuskizuna eskainiko dute 18:00etatik



Leitzatik kanpo jarri dituzte 'Piratak' ikuskizuna ikusteko sarrerak. BARTOLA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Villabona.** Behorlegi-Auski-Ihatea-Altzurükü mendi irteera antolatuta du Aizkardik hildaren 19rako. 649 717182 zenbakian edo *aizkardi@aizkardi.com* helbidean eman daiteke izena.

Antzerkia

■ **Ibarra.** Xurdin taldeak *Musika tresnen fabrika* antzezlanaren eskainiko du Kultur Etxean 11:30ean.

Erakusketa

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan Alkiza ahizpen margolan erakusketa. Oleo teknika erabili dute eta gehienbat paisaiak jorratu dituzte.
■ **Hernialde.** Urtei Batiz bilbotarraren keramika lanen erakusketa Hernialdeko ostatuan.
■ **Tolosa.** El Roto komikilariaren *Agua tinta* erakusketa Aranburu Jauregian, Tolosa Naturaldia jardunaldien barruan.
■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia+12'* erakusketa Aranburu Jauregian.

Zinema

■ **Tolosa.** *El pistolero* filma emango dute zine-forumean Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Irakurleen lehen argazkiak heldu dira HITZAra dagoeneko; batzuk kanpora atera dira eta beste batzuk etxean topatu dute zer eginik; hauen adibide dira Yoana Mendez eta Igor Ortiz.

Aste Santua ulertzeko bi modu



SEGOVIA

Yoana Mendez tolosarra Espainia aldera joan da Aste Santuan. Hain zuzen, Segoviatik prozesio bateko argazki eder hau bidali du lehiaketara eta haxe azaldu du: «Argazkia Segoviako kaleetan ateratakoa da, Aste Santuko prozesio batean ume honen begira-darekin topo egin nuen. Apirilaren 9an, ostegun santuan atera nuen». YOANA MENDEZ

ARALAR

Hemen geratu direnek mendiaz gozatzeko aukera ere izan zuten pare bat egunez eguzkia azaldu zelako. Igor Ortizek horixe egin zuen eta argazki hau bidali digu: «Aste Santuan hemendik ibili gara. Ez du oso eguraldi ona egin baina ostegunean oso ona egin zuen eta mendira joateko aprobetxatu genuen. Minatatik gora Aralar aldera igo ginen eta bertan erreka eder zegoen». IGOR ORTIZ



A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak